hiru 3

GABONETAKO

ikuskizun bereziak!

- Abenduak 29.
  Donostian (Kursaalen)
  18:00
- Abenduak 30.
  Iruñean (Baluarten)
  18:00

hiru 3 · eitb · CaixaBank · euskaltel · Ayuntamiento de Pamplona Iruñeko Udala · Donostiako Udala Ayuntamiento de San Sebastián

IBAIZABAL

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

ABENTURAK BIZITZEA
PLANIK HOBERENA

IRAKURRIZ
BIZI!

ibaizabal

2

AURKIBIDEA

3TXULO Gabonetako ikuskizun bereziak 4. orr

Izan HIRU3 ! 7. orr

HIRU3 ekintzak 10. orr

Zinegabonak 19. orr

Olentzero 20. orr

Hiru3 aldizkaria EiTB
Basurtuko Kaputxinoak, 2
48013 Bilbo
94 656 30 00

HIRU3 komunitatea
94 656 31 22
hiru3@eitb.eus
www.eitb.eus/hiru3/

Edizio arduraduna:
EiTB

Kolaboratzailea:
Ibaizabal argitaletxea

Diseinua, ilustrazioa eta digitalizazioa:
eitb.eus

Kaixo, lagun:

2016. urtea modu paregabean agurtuko dugu, izan ere, gabonetan **3TXULO ikuskizun bereziak** izango ditugu Donostian (Kursaalen), abenduaren 29an, eta **Iruñean** (Baluarten), abenduaren 30ean. 4ra, 2ttor, Xbel eta izeba Kattalin gure lagunak han egongo dira, Gorritxorekin batera, noski! Primeran pasatuko dugu denok elkarrekin!

Gainera, **HIRU3 komunitatearen diskoa** aurkezteko ere hainbat hitzordu ditugu urte bukaeran: 3TXULOko lagunak **Elkar dendetan** izango dira **diskoak sinatzen**. Zure diskoa sinatuta izan nahi baduzu, ez hutsik egin!

Bestalde, urteko azken txanpa honetan, hainbat **lehiaketa eta zozketa** izango ditugu: filmak ikusteko sarrerak, beira birziklatzeko Gorritxoren edukiontzi txikiak, HIRU3ko diskoak, panpinak, liburuak eta beste hainbat kontu banatuko ditugu. Adi egon eta parte hartu gure webguneko ekimenetan. HIRU3 kide izateak abantaila ugari ditu!

Aurten ere, urtero bezala, **Olentzero EiTBren Bilboko egoitzan** egongo da, **abenduaren 22an**, 17:00etatik aurrera. Berarekin argazkiak egiteaz gain, zure eskutitza eman ahalko diozu. Oraindik ez duzula idatzi? Bada, jo HIRU3ren Gabonetako atarira eta han idatzi zure eskutitza!

Bitartean, gozatu aldizkari honetan jaso ditugun argazki eta ekimen ugariekin.

Izan HIRU3!

3TXULO GABONETAKO IKUSKIZUN BEREZIAK

Dagoeneko ondotxo dakizuenez, aurten urtea modu paregabean agurtuko dugu, gabonetan 3TXULO ikuskizun bereziak izango baititugu **Donostian (Kursaalen), abenduaren 29an,** eta **Iruñean (Baluarten), abenduaren 30ean**. Ekitaldi biak **18:00etan** hasiko dira, eta 4ra, 2ttor, Xbel, izeba Kattalin eta Gorritxo gure lagunen eskutik, **istorio politak** entzungo dituzue, **3TXULOko kanta ezagunak** abestuko dituzue, eta **sorpresaz betetako ikuskizuna**izango da!

Gainera, Kursaalen zein Baluarten, horrenbeste maite dituzuen pertsonaiekin **argazkiak ateratzeko aukera** izango duzue ikuskizunaren aurretik. Primeran ibiliko gara denok elkarrekin!

Sarrerak bi euroan izango dira salgai, Kursaalen eta Baluarteren webguneetan. Gainera, **zenbait sarrera zozkatuko ditugu** HIRU3ko kideen artean ere. Adi egon!

3TXULOtar pertsonaia maitatuekin egoteko aukera eta ikuskizuna bertatik bertara ikusteko aukera paregabea izango duzue.

Donostian eta Iruñean dugu hitzordua. Ez hutsik egin!

hiru jaia Mungian

Hiru3 EiTBko haur komunitateak **urteroko jai handia** egin zuen ekainaren 18an Mungian. Batetik, '**Denboraren makina**' 3TXULOko ikuskizun bereziak hartu zituen Olalde aretoko bazterrak, eta Bittor, Laura eta Ixabel protagonista zituen ekitaldiaz gozatzeko aukera paregabea izan genuen hara hurbildu ginen guztiok.

Halaber, aretoaren kanpoko aldean, **HIRU3 gunean**, opariak jasotzeko aukera izateaz gain, Gorritxo umeen pertsonaia gogokoenak ere izan zuen bere lekua eta hara gerturatu zirenekin argazkia atera zuen, haurrek euren pertsonaia kutunenarekin oroitzapen polita izateko.
Ikusi jaiko argazkiak!

Neska ala mutil, eskubideetan berdin

Kaixo, lagunok!

"Neska ala mutil, eskubideetan berdin" Emakunderen kanpainaren baitan, **"3TXULO"** saioan bideo laburrak eskaini ditugu. Hona hemen bideo horietako batzuk. Gogoratu, nahi duzuenean, **3TXULO** saioaren webgunean ikus ditzakezue berriro!

AMA, AITA, AITAMA, AMAITA

NI BAI, ZU EZ

AUKERAK AUKERAN

IZAN hiru 3

Bazkide gunea

EiTBk historiaz zein naturaz gozatzeko eta egun zoragarria pasatzeko aukera eskaintzen die HIRU3ko kideei. Izan ere, hainbat erakunderekin lankidetza-hitzarmena sinatu du HIRU3 haur komunitateak, eta, horri esker, etxeko txikiek **gune horietara doan joateko aukera** izango dute.

Hortaz, HIRU3 klubeko bazkide zarelako, hainbat abantaila dituzu eskura, eta baita doako sarrerak ere. **Karpin Abentura, Urdaibai Bird Center, Bilboko Itsasadarra eta Bizkaia Park Abentura** guneetara joateko sarrera bat oparituko dizugu, helduentzako sarrera bat erosita.

Orain gainera, HIRU3ko kide egitea inoiz baino errazagoa da, **online** egin dezakezulako webgunearen bidez. Esan lagunei eta gozatu abantaila guztiekin! **Badakizu, izan HIRU3!**

CaixaBank

BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA

Bilboko portuaren eta itsasadarraren bidez itsasoko abentura zoragarrira hurbiltzen gaituen behatoki pribilegiatua da. Museoa Euskalduna ontziola zegoen lekuan dago, Bilboko itsasadarraren ezkerraldean. Hiria eta eskualdea sustatzeko elementua izateaz gain, Museoaren helburua Bilboko itsasadarrean eta horretatik bizi izan diren gizon eta emakumeen historia, kultura eta nortasuna babestea eta hedatzea da; Bilboko itsasadarra itsasoko tradizioari estu lotuta dago.

URDAIBAI BIRD CENTER, berriz, naturaren museo bizia da, eta jendaurrera irekita dago hegaztiez eta horien migrazioez gozatzeko. Ekipamendua bera paduraren behatoki aparta da eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren bihotzean dago. Zentroan bertan, ikerketa eta dibulgazio taldeak bildu eta koordinatzen dira, eta, horrela, bisitariak hegaztiei buruz garatzen diren proiektuen lekuko pribilegiatuak dira.

KARPIN ABENTURA beraien inguru naturalean bizi ezin diren animalia basatientzako gunea da. Inguru paregabean dago, eta Kantauriko ibilbideko kultur eta aisialdi eskaintza zabalaren osagaietako bat da. Guztira, 55 espezietako 450 animalia baino gehiago bizi dira Karpinen. Gainera, parkeak hainbat eremu ditu: Animalia, Terrasauro, Gastornisland, Chavarri Jauregia, Dinotxiki eta erakusketa-aretoak.

BIZKAIA PARK ABENTURAN piraten munduan murgilduko gara! Zuhaitzerara igo, faro baten gainean jarri, piraten sareetatik ihes egin, txirristatik jaitsi…Umeek hori guztia egin ahal izango dute Bizkaia Park Abentura gunean, ezin hobeto pasatzeko aukera eskainiz. Parkea urtebete eta 13 urte bitarteko umeentzat da, eta adinaren arabera egokitutako hainbat gune ditu.

CaixaBank

PortAventura Parkerako sarrera doan!

EiTBk eta Caixabankek elkarrekin duten hitzarmenari esker, Hiru3ko kideek abantailak dituzte; esaterako, PortAventura Parkera joateko sarrera bat jaso ohi dut urtebetetze-opari gisa.

Zorion-gutunean agertzen den bezala, kupoi hori eta Izar Libreta hartu eta gertuen duzuen CaixaBanken bulegora joan behar duzue. Bulegoan, sarreraren baliokidea den ziurtagiria emango dizuete. Helduentzako sarrera bat erosita, jaso umearentzatko sarrera bat doan, etaparkean egun zoragarria igaro!

PortAventura parkera joateko sarrera bat

PortAventura World, un mundo de experiencias únicas
PortAventura World, mundu bete esperientzia

1. Hartu zorion-gutuna, eta zoaz gertuen duzun "CaixaBank" bulegora.
2. "CaixaBank"en bulegoan PortAventura parkerako sarrera bat emango dizute zorion-gutuna eta Izar Libreta aurkeztuta. Libretarik ez baduzu, bertan ireki zenezake 5 euroko gutxieneko diru-sarrera eginda.
3. Behin PortAventura parkeko leihatilan egonda, aurkeztu "CaixaBank"en eman dizuten sarrera eta Izar Libreta, eta trukatu baliodun sarrera batengatik.

Kupoirik ez baduzue jaso, eta parkera joateko asmorik izatekotan, jarri gurekin harremanetan: hiru3@eitb.eus

Hiru3 Ekintzak 2016

Hiru3 komunitateak kaleko ekimenak indartu ditu 2016an eta, hartara, haurren jai eta gune ugaritan parte hartu du klubak eta Gorritxo pertsonaia kutunak. Gune berezi horietan, Gorritxo pertsonaiarekin argazkia ateratzeko aukera izan dute hara hurbildu diren haur guztiek. Halaber, kide egiteko aukera eta Gorritxoren kamiseta eskuratzeko aukera ere izan dute HIRU3 klubaren gune berezietan.

Euskararen aldeko jaietan bere propioa izan du HIRU3 klubak, Ikastolen Elkarteak antolatutako jaietan zein Euskal Eskola Publikoaren jaian. Aurten, estreinakoz, Bilbao BBK Live Bereziak programazioaren barnean, Play'N'Kids Jaialdia egin da Bilbon, uztailaren 9an, eta Hiru3 klubak gune berezia izan zuen eta Gorritxo izateaz gain, txapak egiteko tailer berezia antolatu zen.

Halaber, Bilboko Aste Nagusian Txikigunea umeentzako gune berezian izan zen Gorritxo, abuztuaren 22an eta 25ean. Hiru3 klubak gune berezia izan zuen eta haurrek Gorritxorekin argazkia ateratzeko aukera izan zuten.

3txulotarrek indarrez beteta eta gogotsu abiatu dute ikasturte berria eta ospatzeko, 2ttor, 4ra, Xbel, izeba Kattalin eta Gorritxok Tolosako haurrekin abestu eta dantzatu dute Udaletxeko Plazan. Ekitaldi mundial hori grabatu egin dute, eta Tolosako haurrak dituprotagonista '3txulo' abestiaren bideoklipak, telebistan eta interneten ikusgai dugu ikusgai.

Hau da deidarra, 3TXULOtarrok!

HIRU3 komunitateak diskoa kaleratu du!

HIRU3 komunitatearen disko berria kalean da dagoeneko. Hamar kantuz osatutako lanak "3TXULO" saioko hainbat kantu ezagun biltzen ditu; 'Bota 5ekoa', 'Lotaratu', 'Plisti-plasta', 'Zori, Zorionak' eta '3TXULO!', besteak beste.

2ttor, 4ra, Xbel eta izeba Kattalin fin aritu dira kantuan, eta zuk ere eurekin batera behar den moduan abesteko, kantu guztien letrak ere jasotzen ditu disko honekin batera doan liburuxkak.

Aurkezpen ekitaldiak

Diskoa eskuragai dago jada **Elkar dendetan.** Gainera, behar bezala aurkezteko, **Durangoko Azokan** egin genuen aurkezpen ekitaldia, **Saguganbaran**. Aurretik, Durangoko Azokan bertan, Elkar argitaletxearen standean izan ziren "3TXULO" saioko protagonistak diskoak sinatzen.

Urtea bukatu aurretik, gainera, diskoa aurkezteko hitzordu gehiago izango ditugu, izan ere, **Elkar dendetan izango dira 3TXULOtarrak diskoa aurkezten eta sinatzen!**

Gorritxoren kamiseta ere prest!

Gure pertsonaia kutunak ere badu jada bere kamiseta. Ze polita den, ezta? Zuk ere lortu nahi baduzu, adi-adi jarraitu non izango diren HIRU3 guneak kalean, han izango baita eskuragai!

'3TXULO', BERRIKUNTZAZ BETETA!

2ttor, 4ra, Xbel, Izeba Kattalina, Gorritxo, Sasi, Laino eta **Harriet**. Pertsonaia horiek guztiak ardatz hartuta, topagune dibertigarria osatzen dute, eta euren abenturak eta elkarbizitzaren gorabeheren berri izaten dugu egunero, ETB3n.

2TTOR (Bittor) iraganetik dator. Guztia iruditzen zaio berria, ezezaguna. Inuzente eta trakets samarra da; txantxazalea ere bai.

Etorkizunetik datorren neska alai eta zoriontsua dugu **4RA (Laura)**. Harritu egiten da bere garaiko asmakizunik gabe nola bizi garen ikusita.

Izeba Kattalina, aldiz, Bittorren izeba da, eta maltzurra da. Izebaren etxea 3TXULOtarren azpian dago, eta haiek egiten dutena zelatatzen ibiltzen da, periskopio baten bidez.

XBEL (Ixabel) pertsonaia, aldiz, **gaur egungo neska da**; bizitza osasuntsuaren aldekoa da, eta kantatzea, margotzea eta artearekin zerikusia duen guztia maite du.

Gorritxo atenporala da; bihurria, jostalaria eta oso jakintsua. Munduaren historiako gertakizun guztien lekuko izan dela dio. Bera da '3txulo'ko ikur eta irudia.

Sasi eta Laino galtzerdi parea dira, eta inork ez daki noizkoak diren; izan ere, baten batek Kattalinaren **Harriet galtzerdia**, berriz, fina eta bitxia da, eta bazterrak nahasten biltzen da beti.

ZORIONAK

Aurten ere, **haurren parte hartzea modu berezian bultzatu da** '3txulo' saioan; hartara, umeen **urtebetetzea zoriontzeko argazkiak bidaltzeko aukera izan dute.**

Halaber, inauterietako zein oporretako argazkiak ere bidaltzeko aukera izanik, argazki ugari jaso ditugu. Argi gelditu da primeran ibili zaretela guztiok ere!



Iritsi da Hiru3 app berria!

ETB3ko marrazki bizidunak eta "3txulo" saioa nahi duzunean eta nahi duzun lekuan ikusi nahi dituzula? Bada, horixe eskaintzen dizu HIRU3 aplikazioak, marrazki bizidunak mugikorrean zein tabletean euskaraz ikusteko aukera paregabea!

Edukiak **adinaren arabera** sailkatuta daude, hiru adin tartetan: **0-4, 5-7 eta 8 urtetik** gorakoentzako edukiak. Gainera, PlayStore edo APP Store erabilita jaitsi daiteke Hiru3 app-a.

"3txulo" saioa eta haurren marrazki bizidun gogokoenak, azken nobedadeak zein kapitulu berriak, modu erosoan, nahi duzun lekuan eta unean ikusteko, **Hiru3 app-a** da zure aukera!



Gozatu marrazki bizidunak euskaraz, nonahi eta noiznahi!

IRAKURKETA TXOKOA

Oilo txikia



Egilea: Núria Figueras i Adell
Marrazkilaria: Teresa Martí
Orrialdeak: 32
Adina: 6 urtetik aurrera
Laburpena:
Bazen behin oilo bat txiki-txiki-txiki-txikia. Eta hain txikia zenez, ez zuen arrautzarik erruten. Behin eta berriz saiatzen zen, baina ez zegoen modurik. Eta, ezustean, halako batean…

Untxiren ohitura txarrak

Egilea: Julian Gough
Marrazkilaria: Edu Zelaieta Anta
Orrialdeak: 112
Adina: 6 urtetik aurrera
Laburpena:
Hartzek ez du inoiz elurrezko panpinik egin. Untxik ere ez, baina oso argi dauka berea Hartzena baino hobea izango dela. Elur-jausi batek eta otso goseti batek lagunduko diote Untxiri konturatzen zein ona den lagun bat ondoan izatea.

Ottoline eta Azeri Morea



Egilea: Chris Riddell
Marrazkilaria: Chris Riddell
Orrialdeak: 192
Adina: 8 urtetik aurrera
Laburpena:
Inork ez du jai handia galdu nahi.
Gainera, gonbidatu berezi bat dago: Azeri More misteriotsua, ezohiko abenturak izaten dituelako ezaguna dena. Eta nola ez joan harekin gauerdian, Hiri Handian barrena, safari bat egitera?

JOKOZ KANPO! Arlote metodoa, aparteko futbolaria izateko



Egilea: Eva Santana
Marrazkilaria: Jaume Bosch
Bilduma: Oriol Arlote (5. zk)
Orrialdeak: 232
Adina: 10 urtetik aurrera
Laburpena:
Gure ikasgelaren historian lehenbiziko aldiz, gu baino zaharragoak garaitu genituen futbolean. Ez nekien oso ondo zer gertatzen zen, baina, bat-batean, ikaskide guztiak jauzika eta oihuka ikusi nituen nigana etortzen. Neskek gainera salto egin eta musu eman zidaten.
«Aupa! AUPA! ONENA ZARA!!!», oihukatzen zuten.
Lisek ere musu eta besarkada bana eman zizkidan, eta ikaskideek bizkarrean hartu eta jolastoki osotik eraman ninduten, oihu artean:
«PIN, PAN, PUN, BELARRILUZE TXAPELDUN!»

Betidanik haur eta gazte literaturan murgilduta!
ibaizabal
www.ibaizabal.com

HIRU3 KIDEOK BEIRA BIRZIKLATZEA BULTZATUZ

Hiru3 komunitateak eta Ecovidrio erakundeak lortutako lankidetza hitzarmenari esker, Gorritxoren irudia duten edukiontzi txiki eta bereziak landu ditugu elkarlanean, beira birziklatzea sustatzeko.

Zenbat eta gehiago birziklatu, orduan eta zabor gutxiago sortuko dugu, eta gure hirietako airea garbiagoa izango da. Beiraren birziklatze-katea ekintza soil batetik abiatzen da: beira hondakinak (botilak eta ontziak, tapoirik gabe) edukiontzi berdean utzita.

Gorritxoren edukiontzi berezia

Bada, orain, Gorritxoren irudia duen edukiontzi txikia duzu eskura, etxean bertan izan eta han jasotzeko zure beira. Eskuragai duzu jada iglu berezia **Ecovidrioren atarian**. Gainera, **HIRU3 klubak ekimen bereziak** jarri ditu abian iglu txikiak lortzeko. Eskuratu zure iglu txikia!

Gogoan izan, beirak bizi ugari izan ditzake. Birziklatu eta eman beirari bizia!

Birziklatuz, eman beirari bizia!

eitb CaixaBank

Kaixo, lagunok!

3TXULO saioko lagunen abenturekin gauza on asko ikasi ditugu. Hezkuntza sailak esaten duen bezala, 1 + 1 beti da gehiago. Hona hemen bideo horietako batzuk. Gogoratu, nahi duzuenean, **3TXULO** saioaren webgunean ikus ditzakezue berriro!

SAIATU, MARGOTU BIZITZA DANTZAN

3TXULO DANTZ

BOTA 5EKOA

hiru 3 2017

URTARRILA

AL	AS	AZ	OS	OR	LA	IG
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

OTSAILA

AL	AS	AZ	OS	OR	LA	IG
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28					

MARTXOA

AL	AS	AZ	OS	OR	LA	IG
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

APIRILA

AL	AS	AZ	OS	OR	LA	IG
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

MAIATZA

AL	AS	AZ	OS	OR	LA	IG
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

EKAINA

AL	AS	AZ	OS	OR	LA	IG
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

UZTAILA

AL	AS	AZ	OS	OR	LA	IG
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

ABUZTUA

AL	AS	AZ	OS	OR	LA	IG
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

IRAILA

AL	AS	AZ	OS	OR	LA	IG
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

URRIA

AL	AS	AZ	OS	OR	LA	IG
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

AZAROA

AL	AS	AZ	OS	OR	LA	IG
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

ABENDUA

AL	AS	AZ	OS	OR	LA	IG
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

hiru 3 komunitatea

http://www.eitb.eus/eu/hiru3

CaixaBank

eitb

ECC/2316/2015 Aginduak eskatutako informazioa: HIRU3 Izar Libreta

CaixaBank Kreditu Erakundeen Gordailuen Berme Funtsari atxikita dago. Funts hori urriaren 14ko 16/2011 Errege Dekretuan aurreikusita dago. Bermatutako zenbatekoak 100.000 €-ko muga du kreditu-erakunde bakoitzeko gordailugile bakoitzeko.

1 / 6

Zenbaki honek produktuaren arriskua adierazten du. Arrisku txikiena 1/6 da, eta arrisku handiena, 6/6.

Zure sekreturik onenak gordetzeko

Top Secret Super Estutxea

CaixaBank

Top Secret Super Estutxeari[1] esker, zure sekretuak eta zure lagunik onenenak gorde ditzakezu, nahi duzun kodea aukeratuta.

Hiru3 Izar Libreta oraindik ez baduzu, **ekarri zure NANa CaixaBanken edozein bulegotara, eta irekiko dizugu bat**.

Kontsultatu sustapenaren baldintzak CaixaBanken edozein bulegotan edo www.CaixaBank.es webgunean.

1. Sustapen honek izakinak amaitu arte (10.000 ale) balio du. Top Secret Super Estutxe bat Hiru3 Izar Libreta baten titular bakoitzeko, gutxienez 40 € sartuta (libreta berriak edo lehendik irekita zeudenak). Sustapen hau gauzazko ordainsaritzat hartzen da, eta CaixaBanken konturako diru-sarreren mende dago. NRI: 1539-2016/09681.

ZINEGABONAK

Urtea ezin hobeto bukatzeko, EiTBk eta Zineuskadik **Zinegabonak** ekimena jarriko dute martxan, **umeek zinemaz goza dezaten euskaraz**. EiTBren Bilboko egoitzan lau pelikula ikusi ahal izango dira, doan, a**benduaren 26tik 29ra bitartean.**

Emanaldiak **11:00etan** izango dira. Astelehenan, **Stand By Me Doraemon**; asteartean, **Iparraldeko Norman**; asteazkenean, **Albert**; ostegunean, **PAN**.

Gainera, asteburu horretan, abenduaren 30ean eta 31an, Euskal Herriko zenbait zinema-aretoetan euskarazko filmak izango dituzte ikusgai umeek, euro baten truke.

EiTBn izango diren pelikuletarako **gonbidapenak lortzeko**, HIRU3ren webgunean eman behar duzue izena. Sartu atarian eta hantxe jasoko duzue informazio guztia.

Gozatu zinemaz euskaraz!





OLENTZERO

Olentzeroren webgune berezia prest dugu jada! Olentzerori eta Errege Magoei ***eskutitzak idazteko aukera*** *izateaz gain, primeran pasatuko duzue bertan aurkituko dituzuen edukiekin: gabonetako kantak eta ipuinak, Olentzerorekin lotutako jolas eta eskulanak, filmak...*

Gainera, urtero bezala, Olentzero etorriko da EiTBren Bilboko egoitzara. ***Abenduaren 22an*** *egongo da gure artean,* ***17:00etatik aurrera****, eta zuen eskutitzak emateaz gain, berarekin argazkiak egin ahal izango dituzue.*

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

www.eitb.eus/hiru3